

Hemen elkartu garen sindikatuetakako kideok, bat egiten dugu Aralarren mezuarekin eta zera adierazi nahi dugu:

1/ Ezin dugu onartu krisi ekonomikoaren zama guztia langileen gain hartzea. Ez gaude prest bide horretan hartzen diren erabakiak onartzeko eta tinko egingo diogu aurre.

2/ Lan baldintza eskasen eta langabeziaren ondorioz egoera larriak pairatzen dituztenen alde egingo duen erreskate plan sozial bat aldarrikatzen dugu. Osasun zerbitzuetan langile gehiagoren kontratazioa, irakasle gehiago, langile sozial gehiago eta osasun eta hezkuntza azpiegiturretan inbertsio gehiago.

3/ Arlo publikoan ematen den lan prekaritatea salatu nahi dugu, eta administrazioari eskatzen diogu zerbitzu sozialetan ari diren langileen lan baldintza duinak berma ditzala, gehienetan emakumeak eta gazteak.

4/ Gobernuari adierazi nahi diogu ezin dela krisiari aurre egiteko planetatik kanpo utzi langileria. Eragile sozialekin adostu gabeko planak aurkeztu ditu Eusko Jaurlaritzak, diputazioekin eta enpresariekin adosturikoak, baina ez sindikatuekin, eragile sozialekin. Langileok ere parte hartu behar dugu ezinbestean krisiari aurre egiteko planetan.

5/ Erregulazio espedienteen kasuan, bat egiten dugu Aralarrek Jaurlaritzari egiten dion eskariarekin: ez dezala Gobernuak langileekin adostu gabeko ERErik onartu eta ez dezala onartu irabaziak izan dituen enpresak aurkeztutako ERErik.